



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2013IPLE0001

Eguna: 2013-01-31

Ordua: 19:00-20:00

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	BILDU
- Maite Olatziregi Esparza	BILDU
- Agin Rezola Laburu	BILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz	BILDU
- Berta Arozena Bergara	BILDU
- Raul Redín Hernández	BILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat

Bertaratu ez direnak

- Isabel Otero Glorie	BILDU
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N ^o	ORDEN DEL DIA
2012ko abenduaren 19 eta 27ko akten onarpena	1	Aprobación de las actas de 19 y 27 de diciembre de 2012
2013ko aurrekontua. Hasierako onarpena	2	Presupuesto 2013. Aprobación inicial
Kirol instalakuntzen kudeaketa: kontratuaren aldaketa zehatza eta 2013ko gastua baimentzea	3	Gestión instalaciones deportivas: modificación puntual de contrato y autorización gasto 2013



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Informazioa, galdera eta eskariak	4	Información, ruegos y preguntas
--	----------	---------------------------------

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2012ko abenduaren 19 eta 27ko akten onarpena

Aktak, aho batez, onartu dira.

1. Aprobación de las actas de 19 y 27 de diciembre de 2012

Las actas son aprobadas por unanimidad.

2. 2013 aurrekontua. Hasierako onarpena

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezten proposatzen da irizpen horretan:

1. 5.899.009,00 euroko Udaleko Aurrekontua eta 20.000,00 euroko Astigarraga Lantzen, SA elkarteko Aurrekontuek osatzen duten 5.899.009,00 euroko Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena ematea.

2. Aurrekontua osatzen duten 2013ko Aurrekontua gauzatzeko arauak onartzea

3. 2013ko plantila eta lanpostu zerrenda onartzea.

4. 21/2003 Foru Arauak agintzen duen arabera, Udal Aurrekontua eta osatzen duten dokumentuak jendaurrean jartzea. Alegaziorik egon ezean, Aurrekontua, inongo erabakiren beharrik gabe, behin betiko onartua geldituko da.

2. Presupuesto 2013. Aprobación inicial

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1. Proceder a la aprobación inicial del Presupuesto General 2013 de 5.899.009,00 euros, correspondiendo 5.899.009,00 euros al Presupuesto del Ayuntamiento Propio y 20.000,00 al Presupuesto de Astigarraga Lantzen, S.A.

2. Proceder a la aprobación de las Normas municipales de ejecución presupuestaria 2013 que integran el Presupuesto.

3. Proceder a la aprobación de la plantilla y RPT 2013.

4. Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 21/2003, someter a información pública el acuerdo de aprobación del Presupuesto Municipal y documentos que lo integran, reseñando que caso de no formularse alegaciones quedará aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

Alkateak adierazi du 2013ko aurrekontua %0,5 murriztu dela 2012ko aurrekontuarekin alderatuz, eta Espainiako gobernuak murrizketak ezarri dituen arren

Interviene el alcalde señalando que el Presupuesto 2013, se reduce un 0,5% en relación al presupuesto 2012, y que a pesar de las restricciones impuestas por



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

aurrekontu errealista bat egitea lortu dela, eta bertan gizarte-arlorako helburuei eusten zaie pertsonentzako aurrekontu batekin, eta bestalde, murrizketak dauden arren gizarte-laguntzei eta hirugarren mundurako laguntzei ere eusten zaie.

Adierazi du enpleguaren arloan bilduta dagoela Buruntzaldeko eskualde-proiektuetarako parte-hartzea, eta horren bidez 14 kontratazio egingo direla, horietatik 7 hondakinen kudeaketaren arloan eta beste 7 turismoaren sektorean. Gainera adierazi du atez atekoa aurten funtzionamenduan jartzeko zuzkidurak biltzen dituela aurrekontuak.

Hezkuntzaren arloan, ikastetxeetan inbertitzeko partida bildu da, 146.133€-ko zenbatekoarekin, eta kirol-kudeaketaren alorrean kirol-instalazioen hobekuntzaren egikaritzapena berreskuratzen da udalarentzat, gutxienez 25.000€-ko zenbatekoarekin, lehendik Mundaroren kargura zegoena, eta horregatik Mundarroekin dagoen kontratuaren klausula aldatuko da aldaketa hori barne hartzeko, era berean kanona murriztuz. Azkenik, adierazi du kirol eta kultur erakundeentzako laguntzei eusten zaiela, eta aurrekontua errealista dela, ingurumena sustatuko duena, eta ez dela espero inolako mailegurik kontratatzeko beharrik izango denik.

Amaitzeko, adierazi du aurrekontuan ez direla EAJren iradokizunak barne hartu, horietako batzuek gastua handituko zutelako, beste kasu batean idazkari-lanposturako kreditu-erreserba bermatuta geratzen da, eta atez atekoaren aurkako proposamen guztiak ezesten dira, horren ezarpena aurten egingo delako.

Zorione Etxezarraga zinegotziak hitz egin du, eta adierazi du ogasun-batzordean esan zuen bezala ez dutela gobernu-

el Gobierno Español, se ha conseguido hacer un presupuesto realista, donde se mantienen los objetivos en el área social con un presupuesto para personas y en los que a pesar de las reducciones se mantienen las ayudas sociales y las ayudas al tercer mundo.

Señala que en el área de empleo se recoge la participación en proyectos comarcales de Buruntzaldea que permitirá 14 contrataciones 7 en el área de gestión de residuos y otras 7 en el sector del turismo. Señala además que el presupuesto recoge las dotaciones para materializar la puesta en funcionamiento del PaP en este año.

En materia de Educación se ha recogido la partida para inversiones en centros educativos por importe de 146.133€, y en materia de gestión deportiva se recupera para el ayuntamiento la ejecución de la mejora de instalaciones deportivas por un mínimo de 25.000€, que antes estaba a cargo de Mundarro, por lo que se modificará la cláusula del contrato con Mundarro para recoger este cambio, también con su disminución en el canon. Finalmente indica que se mantienen las ayudas a entidades culturales y deportivas, señalando que es un presupuesto realista, que promocionará el medio ambiente y donde no se espera contratar ningún préstamo.

Finaliza su intervención indicando que no se han recogido en este presupuesto las sugerencias de EAJ, dado que algunas incrementarían el gasto, en otro caso queda garantizada la reserva de crédito para la plaza de secretario, y se desestiman todas las propuestas contrarias al PaP, dado que su implantación se realizará este año.

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga señalando que tal y como señaló en la comisión de hacienda no tienen intención



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

taldearen kudeaketa oztopatzeko inolako asmorik, eta horregatik abstenitu egingo direla, baina horrek ez du esan nahi aurrekontu honekin ados daudenik. Adierazi du aurrekontu hau ez dagoela pentsatuta egungo krisialdi-egoerarako, eta planteatutako murrizketak ez direla egokiak, eta adierazi du aurrekontuari buruz egindako iradokizunak banan-banan irakurriko dituela, aktan jasota gera daitezen eskatuz:

GASTU ARRUNTA:

Irizpidea: zerbitzu berririk ez gehitu eta beharrezkoak direnak doitu.

1.- Maiatzeko margo-lehiaketa: Astigartek urtero antolatu izan duen margo-lehiaketaren bideragarritasuna bermatuko duen 2.600 €-ko diru-laguntza ziurtatu.

2.- Idazkari postuari dagokionez: lehiaketa bertan behera utzi eta aurrekontuan aurreikusita dagoen diru kopurua erreserban jarri, udalak aurkeztutako oinarrietan GFaren eta EJren aurkako txostenek eskatzen dituzten aldaketa eta zuzenketak egin bitartean.

3.- Hiri Hondakinen Kudeaketa: Astigarraga Garbia plataformak atez atekoa ezartzearen inguruan alkateari egin dion luzamendu eskaerarekin bat egiten du gure taldeak. Atez atekoa ezartzeko 2013ko aurrekontu zirriborroan aurreikusten den 536.788 €ko kopurua kendu.

- Obra eta Zerbitzuetatik aurreikusten diren 409.088 €-ak berraztertu eta 375.000 €-tara mugatu (2012an HH kudeaketarako behar izan den kopuru berbera).- Hirigintza/alkatetza sailetik aurreikusten diren 117.700 €-ak (Hezitzailea + Inbertsioak + ZZ jaialdia + ZZ politikak) aurrekontutik kendu.

Sanmarko Mankomunitateari 2012ko uztailean eskatu zitzaion HH kudeaketa

de entorpecer la gestión del equipo de gobierno y que por tanto se van a abstener si bien ello no quiere decir que están de acuerdo con este presupuesto. Indica que este presupuesto no está pensado para estos tiempos de crisis y las reducciones planteadas no son apropiadas e indica que va dar lectura a lectura a las sugerencias formuladas al presupuesto, solicitando que consten en acta:

GASTO CORRIENTE:

Criterio: No añadir nuevos servicios y ajustar los necesarios.

1.- Concurso de pintura de mayo: garantizar la ayuda económica de 2.600 € para la viabilidad del concurso de pintura que anualmente Astigarte ha organizado.

2.- Puesto Secretario: anular el concurso y guardar la cantidad de dinero presupuestado, hasta que se modifiquen y rectifiquen las bases presentadas por el Ayuntamiento tal como solicitan los informes de la DFG y GV.

3.- Gestión de Residuos Urbanos: nuestra formación se une a la petición realizada por la plataforma Astigarraga Garbia en relación al puerta a puerta. Quitar del borrador del presupuesto del año 2013 los 536.788 € previstos para la implantación del puerta a puerta.

Reexaminar los 409.088 € previstos en Obras y Servicios y limitar a 375.000 €. Quitar los 117.700 € previstos en el departamento Urbanismo/Alcaldía (Educador + Inversiones + festival ZZ + políticas ZZ).

Recuperar por el plazo de un año las competencias de gestión RU solicitadas a



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

eskumenak urte betez berreskuratu eta epe laburrenean herri guztian txip bidezko 5. edukiontzia ezartzeko plangintza bideratzeko eskaera egin.

Hiri Hondakinen kudeaketa Obra eta Zerbitzuak sailetik bideratu, partida bakarrean.

INBERTSIOAK:

1.- 2 WC publiko: Ergobian eta Anbulategiaren inguruan komun publiko bana jarri.

2.- Hurtzaindegi-zerbitzuarentzat kokapen berria: eskaera maila beteko dituen egoitza ziurtatuko dituen lokala+egokitzapena: 250.000 €.

Zinegotziak berriro dio margo-lehiaketak eskualdean oihartzun handia duela, eta ez daude ados lehiaketa soilik udalerrira mugatzearekin; hutsik dagoen idazkari-lanpostua betetzeko oinarriei dagokienez, oinarri horiek zuzendu egin behar dira eta Eusko Jaurlaritzak nahiz Foru Aldundiak egindako gomendio guztiak barne hartu behar dira, eta atez atekoari dagokienez, ez daude ados atez atekoa ezartzeko barne hartu diren gastuekin, gastua nabarmen igo baita udal honen ekonomia saneatua aprobetxatuz. Azkenik, hurtzaindegiak behar dituen inbertsio-premiak azpimarratu ditu, udalerrian dagoen eskaera ikusita oso txikia geratu baita.

Alkateak hartu du hitza, eta EAJK egindako iradokizunei dagokienez honako hau adierazi du:

Hurtzaindegiari dagokienez: hurtzaindegiaren beharrianak aztertzen ari dira, eta uste dute hainbat zentro egin ordez bideragarriagoa izango litzatekeela kokaleku bakarra izatea. Adierazi du zuen

la Mancomunidad de San Marcos en julio de 2012 y realizar la solicitud para dirigir un plan para colocar en todo el pueblo el quinto contenedor con txip a la mayor brevedad.

Canalizar desde el departamento de Obras y Servicios la gestion de Residuos Urbanos, en una única partida.

INVERSIONES:

1.- 2 WC públicos: colocar un retrete público en Ergobia y otro entorno al Ambulatorio.

2.- Nueva ubicación para el servicio de guardería: estancia que garantizara el número de peticiones, local + adaptación: 250.000 €.

Reitera la concejal que la repercusión comarcal del concurso de pintura es importante, y no están de acuerdo de limitarla sólo al pueblo, en relación a las bases para la cubrición de la plaza vacante de secretario deben de rectificarse las bases recogiendo todas las recomendaciones formuladas tanto por el Gobierno Vasco y Diputación, y en relación al PaP no estamos de acuerdo con los gastos contemplados para la implantación del PaP, que ha incrementado notablemente el gasto favoreciéndose de la saneada economía de este ayuntamiento. Finalmente insiste en las necesidades de inversión que requiere la guardería que se ha quedado muy pequeña para la demanda del municipio.

Interviene el alcalde quien en relación a las sugerencias formuladas por EAJ/PNV, manifiesta:

En relación a la guardería: están estudiando las necesidades de la guardería y entienden que en lugar de hacer distintos centros sería más viable una única ubicación. Señala que es una



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

herentzia bat dela, eta irtenbiderik egokiena bilatzen saiatuko direla.

Margo-lehiaketaren gastuari dagokionez: ez da gastu handiagoa egingo eskualde mailan oihartzun handiagoa lortu nahi izateagatik.

Hutsik dagoen idazkari-lanpostua: ez gaude ados zuen eskaerarekin, eta beste udal bateko idazkari batek idatzitako txostenari balio osoa ematen diogu.

Hiri-hondakinen kudeaketa: ez gaude ados zuen eskaerarekin, 2013. urtean zehar atez atekoa ezarriko da, eta horretarako beharrezko zuzkidurak biltzen ditu aurrekontuak.

Gizarte-gastua: alkateak adierazi du gizarte-gastua ez dela murriztu eta gainera % 4 igo dela, udalak esfortzu handia eginez egungo krisialdi-egoeran.

H1eko zinegotzi Bixente Arrizabalaga mintzatu da, eta 2013ko aurrekontuari dagokionez honako hau adierazi du:

2013ko aurrekontuak alderdi positiboak ditu, adibidez ez da mailegurik eskatzen, aurrekontu-egonkortasuna betetzen da eta gainera zorpetzea txikia da, baina sakonean begiratuta honako akats hauek ditu:

Hutsik dagoen idazkari-lanpostua: idazkari-lanpostu bat hutsik dago, baina zuen oinarrietan errealitatean hirigintzarako KT bat da, bide batez idazkari-zereginak beteko dituena. Udal honetako Idazkari/Kontu-hartzaileak egindako txosten bat dago, eta bere ondorioak baliozkotu egin dituzte Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak jaulki dituzten txostenek. Arriskutsua iruditzen zait beste idazkari batek, Pasaiako udalekoak, Astigarragakoaren gainetik jarduteak, eta alkateari eskatzen diot

herencia vuestra, e intentaremos buscar la solución más adecuada.

En relación al gasto concurso de pintura: No se contempla mayor gasto por el mero hecho de buscar un mayor renombre a nivel comarcal.

Plaza vacante secretario: no estamos de acuerdo con vuestra solicitud y le damos toda la validez al informe redactado por el secretario de otro ayuntamiento.

Gestión de Residuos Urbanos: no estamos de acuerdo con vuestra petición, durante el año 2013 se implantará el PaP y el presupuesto recoge las dotaciones necesarias para ello.

Gasto social: indica el alcalde que el gasto social no se ha reducido sino que se ha aumentado un 4%, haciendo el ayuntamiento un gran esfuerzo en esta situación de crisis.

Interviene el concejal Bixente Arrizabalaga de H1, quien en relación al Presupuesto 2013, señala:

El Presupuesto 2013 tiene aspectos positivos como son que no se tira del préstamo, se cumple con la estabilidad presupuestaria y además el endeudamiento es bajo, pero el presupuesto en su profundidad tiene las siguientes deficiencias:

Puesto vacante de Secretario: existe plaza vacante de secretario, pero en vuestras bases en realidad es un TG para urbanismo que además de paso hará funciones de secretario. Hay informe del Secretario-Interventor de este Ayuntamiento cuyas conclusiones han sido validadas por los informes emitidos tanto por el Gobierno Vasco así como por la propia Diputación Foral. Me parece peligroso que otro Secretario, el del ayuntamiento de Pasaia, puentee al de



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

oinarri horiek erretira ditzala.

Atez atekoa: gastua eta defizita handitzen dira, sortzen diren diru-sarrerekin alderatuz gero, eta defizit hori gero eta handiagoa izango da. Astigarragan 2.000 sinadura bildu dira eta gehiengoa atez atekoaren aurka dago, baina gobernu-taldeak proiektuarekin aurrera jarraitzen du, eta horrek agerian uzten du gobernu-taldeak oso sentsibilitate txikia duela.

Inbertsioak: ikastolan egin beharreko inbertsioarekin ados nago, eta eskatzen dut atez atekora destinatuta dagoen inbertsioa kentzea eta landa-inguruko inbertsioetara destinatzea.

Arrazoi horiek guztiak direla medio aurkako botoa emango duela adierazi du.

Agin Rezola zinegotziak hitza hartu du, eta adierazi du Bixentek soilik gaztelaniaz hitz egiteak tristura eragiten diola, eta era berean adierazi du euskara erabiltzeko planarekin lanean ari direla eta horrelako mintzaldiak ez-betetze gisa agertuko direla.

Alkateak erantzun dio zinegotzi Bixente Arrizabalagak esandakoari, eta Pasaia udaleko idazkariak hutsik dagoen idazkari-lanpostuaren oinarri buruzko txostena jaulkitzerakoan izan duen parte-hartzeari dagokionez, gogora ekarri du zer egiten zuen aurreko korporazioan kontratatutako arkitekto batek arkitektoaren zereginak betetzen. Bestalde, atez atekoaren gastuari dagokionez, gogora ekarri du udalerriko herritar bakoitzak 253 € aurreztuko dituela erraustegia ez bada egiten, eta guk atez atekoa garatuko dugu, erraustegia eraiki dezaten saihestuz.

Ondoren Sanmarkoko zaborteziaren klausura-funtsa mankomunitateko hainbat

Astigarraga, y pido al alcalde que retiren estas bases.

Puerta a Puerta: Se incrementa el gasto y el déficit con respecto a los ingresos que se generan, y ese déficit cada vez va a ser mayor. En Astigarraga se han recogido 2000 firmas y una gran mayoría está en contra del PaP, pero el equipo de gobierno, continúa con el proyecto, lo que refleja la poca sensibilidad que tiene el equipo de gobierno.

Inversiones: Estoy de acuerdo con la inversión en la ikastola y solicito que se quite la inversión destinada al PaP y se destine a inversiones en la zona rural.

Por todas estas razones señala que va a votar en contra.

Interviene el concejal Agin Rezola para manifestar la tristeza que le causa el haber escuchado la intervención de Bixente sólo en castellano, señala que se está trabajando con el plan de cumplimiento del euskara y que este tipo de intervenciones aparecerán como incumplimientos.

Contesta el alcalde a las manifestaciones del concejal Bixente Arrizabalaga, señalando que en relación a participación del secretario del ayuntamiento de Pasaia emitiendo informe sobre las bases de la plaza vacante de secretario, cabe recordar que hacía en la anterior corporación un arquitecto contratado realizando tareas del arquitecto. Por otro lado en relación al gasto del PaP, recuerda que lo que cada ciudadano del Municipio se ahorrará 253€ si la incineradora no se realiza, y nosotros desarrollaremos el PaP, evitando que se construya la incineradora.

Seguidamente se desarrolla un debate en relación a la utilización del fondo de



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

arduradunek erabili izanari buruz eztabaidatu da, mankomunitateko kudeatzaileentzako beste herentzia bat izanik.

Azkenik, alkateak 2013ko Aurrekontu Orokorren eta hori osatzen duten dokumentuen onarpena bozketan jarri du, eta **onartu egin da EHBILDUko zinegotzien aldeko 6 botorekin, EAJren abstentzio batekin eta H1en aurkako boto batekin.**

clausura del vertedero de San Markos, por parte de los distintos responsables de la mancomunidad, siendo otra herencia para los gestores de la Mancomunidad.

Finalmente el alcalde somete a votación la aprobación del Presupuesto General 2013 y los documentos que la integran conforme al dictamen presentado, **siendo aprobado con 6 votos a favor de los concejales de EHBILDU, 1 abstención EAJ/PNV, y 1 voto en contra H1.**

3. Kirol instalakuntzen kudeaketa: kontratuaren aldaketa zehatza eta 2013ko gastua baimentzea

Alkateak adierazi duenez, Astigarragako kirol-instalakuntzak kudeatzeko Mundarrokekin sinatutako kontratuari loturik, 2011ko likidazioaren eta hobekuntza-obren egikaritzapenean sortutako arazoen ondorioz Udalari eskatu diotela Udalak egin ditzala obrak zuzenean; Udalak horixe onartu zuen batzordean eta honako irizpen hau aurkeztu da:

Ogasun-batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek har daitezten proposatzen da irizpen horretan:

1.- Sinatutako kontratutik, 3. klausulan, urtero Mundarrok gutxienez, 25.496,98€ gastatzea Kirol instalazioetan hobekuntzetan gauzatzea, betebehar hori kentzea eta aipaturiko gastua Udalak zuzenean bere gain hartzea.

2.- Urteko kanona gutxitzea udalak bere gain hartutako gastuaren arabera.

3.- 2013 urterako 240.503,02€ gastua onartzea, urteko kanon kontzeptuan, 1.0700.471.452.11.01.2013 kontusailen kargura.

3. Gestión instalaciones deportivas: modificación puntual de contrato y autorización gasto 2013

El alcalde señala que en relación al contrato suscrito con Mundarro para la gestión de las instalaciones deportivas de Astigarraga, a resultas de la liquidación del 2011 y los problemas surgidos con la ejecución de las obras de mejora han solicitado al Ayuntamiento que realice directamente dichas obras, el ayuntamiento así lo aprobó en comisión y se presenta el siguiente dictamen:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Excluir del contrato la obligación contenida en la cláusula 3ª, de destinar un importe mínimo de 25.496,98€, para mejora de instalaciones deportivas, siendo asumido este gasto por el Ayuntamiento.

2.- Reducir el importe del canon anual en el gasto asumido por el Ayuntamiento.

3.- Autorizar un gasto para el año 2013, en concepto de canon por importe de 240.503,02€, con cargo a la partida 1.0700.471.452.11.01.2013.



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Bozketa egin ondoren, irizpena aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

4. Informazioa, galdera-erreguak

Bertan dagoen jendearen artean lagun batek erraustegiaren aurkako eta atez atekoaren aldeko adierazpena egin du.

Zorione zinegotziak adierazi du, biribilgune berriaren eraikuntzari dagokionez, erabaki zela obra hori egikaritu ondoren uholdeak izan duen eraginaren inpaktuaren balioespena egingo zela.

Raul Redin zinegotziak EAJri zorionak eman dizkio prentsan agertu diren informazioak direla medio, izan ere, bertan adierazten baita Eusko Jaurlaritzak makroinbertsioak egokiak ote diren aztertuko duela, eta bereziki Pasaiaiko kanpoko portua.

4. Información, ruegos y preguntas

Se desarrolla una intervención del público contraria a la incineradora y a favor del PaP.

La concejal Zorione indica que la realización de la nueva rotonda se quedó en hacer una valoración del impacto que ha tenido la inundación tras la ejecución de dicha obra.

El concejal Raul Redin felicita a EAJ/PNV por las informaciones en prensa donde figura que el Gobierno Vasco se va a replantear las macroinversiones especialmente el Puerto exterior de Pasaia.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2013ko otsailaren 5ean

**Xabin Olaizola Lasa
Idazkaria**